



**Esp. kodea:** 2020EDIR0006  
**Titularra:** OSKAR ELIZBURU EGIAZU

**Gaia:** 2020ko diru laguntza eskaera (2020/1.8)  
**Hasiera data:** 2020/05/25

## Hitzarmena

### **Arrasateko Udalaren eta Debagoieneko AEK euskaltegiaren artekoa Arrasateko helduen euskalduntze-alfabetatzean elkarlanean aritzeko**

Arrasaten, 2020/07/24an

#### **Bileran dira**

Alde batetik, Aitziber Balantzategi Ibargoitia, Debagoieneko AEK euskaltegia-Euskaraz Kooperatiba Elkartearen lehendakaria, adinez nagusia; ENA zk. 16 277 623 V. Elkartearen IFK: F-95222816.

Eta bestetik, Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Udalaren alkate-udalburua, haren izenean diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dago eta.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri

#### **Lege testuingurua**

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarren hizkuntza eskubideak aitortu eta herri-agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Albisteak eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen die herritarrei, besteak beste. Lege horren arabera, beraz, Euskal Herriko herri-agintek –eta, zehazkiago esanda, udalek– euskara zabaldu eta zabaltzen laguntzeko obligazioa dute.

Horretaz gain, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7 artikuluan zehazten du udalei izendatzen zaiela eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena.

#### **Azalpenak**

Ugariak eta emankorrek dira Arrasate euskalduntzeko aspaldion hainbat entitatek egindako ahaleginak. Hala ere, oraindik ere nabarmenak dira euskaraz bizi ahal izateko, eguneroko bizitzan etengabe izaten diren oztopoak.

Aspaldi zaharrear eman zituen Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) Arrasate euskalduntzeko lehenengo urratsak. Helduen euskalduntze-alfabetatzeak duen garrantzia kontuan harturik, Arrasateko herriari ezinbestekoa zaio bitartekoak eskuratzea, jarduera hori hobetuz, eta hedatuz joan dadin, betiere, euskaraz bizitzeko, eskolaren bidez garatzen ari den lanaren osagarri.

Udalaren ekimenaz gain, ezinbestekoak dira herritarren ekimenak. Are gehiago, garrantzi handikoa da herritarrek Udalarekin elkarlanean jardutea. Horren isla eta adibide xume bat baino ez da aspaldiko urteotan Debagoieneko AEK euskaltegia (Erdu-AEK euskaltegiari segida eman dio) jorrotutako bidea. Aurrerantzean ere, hala izan dadin asmo tinkoa izanik, bi entitateok elkarlana sakondu eta areagotu nahi dute, Arrasateko helduen euskalduntze-alfabetatzea emankorragoa izan dadin.



**Esp. kodea:** 2020EDIR0006

**Titularra:** OSKAR ELIZBURU EGIAZU

**Gaia:** 2020ko diru laguntza eskaera (2020/1.8)

**Hasiera data:** 2020/05/25

Gaur egun, ordea, Euskaraz Kooperatiba Elkarteak hartu du bere gain Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) orain arte emandako euskarazko eskolen ardura, irakaskuntza lanari utzi dio eta. Hortaz, bada, Debagoieneko AEK euskaltegia kooperatiba horretako euskaltegia da. Hemendik aurrera, hitzarmen honi dagokionez, Debagoieneko AEK euskaltegia izena erabiliko dugu, Debagoieneko AEK euskaltegia-Euskaraz Kooperatiba Elkartearen izendatzeko.

Hori guztia dela eta, hitzarmen hau izenpetzen dute, klausula hauen arabera.

### **Klausulak**

**Lehena.** Debagoieneko AEK euskaltegiak 2019-2020 ikasturtean antolatutako euskarazko eskolak diruz lagunduko ditu Arrasateko Udalak, hitzarmen honen bidez. Hitzarmenetik kanpo daude Debagoieneko AEK euskaltegiak enpresentzat berariaz antolatzen dituen euskarazko eskolak.

**Bigarrena.** Hitzarmena indarrean dagoen bitartean betebeharrak izango ditu Debagoieneko AEK euskaltegiak:

- Ikasturte hasieran programa, aurrekontua, ikastaroak, taldeak, matrikulazioa, eta abar aurkeztuko dizkio Arrasateko Udalari.
- Ikasturte bukaeran, talde, jarduera eta abarren balantzea jasotzen duen memoria aurkeztuko du, ikasturteko diru zuriketarekin batera.

**Hirugarrena.** Goian aitatutako ekintzak, 2019-2020 ikasturtean antolatzeko, Arrasateko Udalak talde orduko 10,125 €-ko diru laguntza emango dio Debagoieneko AEK euskaltegiari. Hortaz, bada, 2019-2020 ikasturtean Debagoieneko AEK euskaltegiak 2.147,25 talde ordu (horietatik 182,25 autoikaskuntzako taldeei dagozkien) emango dituela kontuan izanik, 21.740,91 €-koa izango da Arrasateko Udalaren aurtengo diru laguntza.

**Laugarrena.** Hitzarmen hau sinatu eta berehala jasoko du diru laguntzaren %60a, eta gainerakoa diru laguntza zurretutakoan.

**Bosgarrena.** Udalak babestutako ekintzen kartel iragarleetan eta, oro har, ekintza horien publizitatean, babeslearen izena jarriko du Debagoieneko AEK euskaltegiak.

**Seigarrena.** Bestalde, Arrasaten bizi diren herritarren euskalduntze-alfabetatzea sustatze aldera, Debagoieneko AEK euskaltegiak Arrasaten duen euskaltegiko ikasleen matrikulak ahalik eta txikienak izatea nahiko luke Arrasateko Udalak. Hori dela eta, 2020-2021 ikasturtean irizpide hauek erabiliko ditu Debagoieneko AEK euskaltegiak, Arrasateko ikasleei dagokienez:

- a) Matrikula egiteko unean, langabezia egoeran dauden pertsonen, ikasleei eta jubilatuak %50eko murrizketa aplikatuko die matrikulazioan, betiere dagozkion agiriak aurkeztu ondoren. Ikastaroa 50 orduko behar bada, ez da murrizketarik aplikatuko.
- b) Hitzarmen honen esparruaren barruan dauden Arrasateko gainerako ikasleei, berriz, 2020-2021 ikasturtean ikasturteko 0,30 €-ko murrizketa aplikatzea.
- c) Kasu guztietan, ikasleek Arrasaten errolatuta daudela egiaztatzea behar dute.



**Esp. kodea:** 2020EDIR0006  
**Titularra:** OSKAR ELIZBURU EGIAZU

**Gaia:** 2020ko diru laguntza eskaera (2020/1.8)  
**Hasiera data:** 2020/05/25

**Zazpigarrena.** Azaroan aurkeztu beharko ditu Debagoieneko AEK euskaltegiak 2019-2020 ikasturteko memoria eta 2020-2021 ikasturteko egitasmoa. Ikasturteko diru kontuak, berriz, 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen, aurkeztu beharko ditu: 2019-2020 ikasturtean izandako gastu eta sarreraren balantzea, diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia dutenak, eta gastuen jatorrizko agiriak (fakturak), hain zuzen.

Bestalde, aurtengo urtea amaitu aurretik, 6. klausulak jasotzen dituen irizpideen aplikazioari buruzko datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu Debagoieneko AEK euskaltegiak: 6. ataleko laguntza jaso duten ikasleen zerrenda eta bakoitzaren egoera egiaztatzen duten agiriak, batetik, eta gainerako ikasleen zerrenda, bestetik. Kasu guztietan, ikasleek Arrasaten erroldatuta daudela egiaztatuta beharko dute.

**Zortzigarrena.** Debagoieneko AEK euskaltegia da bere langileen arduraduna eta legearen aurrean erantzule bakarra, sor daitezkeen ondorio guztietarako. Hortaz, bada, hitzarmen honen izaera eta xedea direla medio, Debagoieneko AEK euskaltegiko irakasleek ezingo dute Arrasateko Udalaren plantilaren funtzionario izaera bereganatu, ez eta enplegatu finko, aldi baterako edo ordezko izaerarik ere, ez Toki Administrazioako Funtzionarioei buruzko xedapenen arabera, ez eta Lan Legearen arabera ere.

**Bederatzigarrena.** Udalak ez du inongo eskubiderik hartzen Debagoieneko AEK euskaltegiko barne gaietan sartzeko.

**Hamargarrena.** Debagoieneko AEK euskaltegiak ez du eskubiderik hitzarmena amaitzen denean inolako kalte ordainik eskatzeko.

**Hamaikagarrena.-** Hitzarmen honen klausulak ezin izango dira aldatu edo zabaldu, bi aldeak ados jarri barik. Koordinazio mekanismo gisara, bitariko batzordea eratzea adosten da, hitzarmen honen betetze eta interpretazioan sor daitezkeen arazoak ebazteko egitekoarekin. Batzorde hau osatuko dute Kultura eta Euskara sailtako zinegotzi eskuordetuak eta Debagoieneko AEK euskaltegiko lehendakariak.

**Hamabigarrena.-** Hitzarmen honetan jasotakoiei begira, Oskar Elizburu izango da Debagoieneko AEK euskaltegiaren arduraduna.

**Hamairugarrena.-** Hitzarmen honen iraunaldia amaituko da Arrasateko udalak aurkeztutako zuriketaren ondorengo ebazpena hartzen duenean.

**Hamalauugarrena:** Alderdiak ez badituzte betetzen dagozkien betebeharrak, hitzarmena bertan behera uzteko prozedura hasiko da. Hitzarmena bertan behera utziz gero, hitzarmena bete duen alderdia bere betebeharrak betetzetik salbu geratuko da.

Eta hala jasota geratzeko, eta adostasuna agertzeko, hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute.

Aitziber Balantzategi Ibargoitia  
Euskaraz Kooperatiba Elkarteko lehendakaria

Maria Ubarretxena Cid  
Arrasateko Udaleko alkate-udalburua

